

ZIRTAK
Paxi Zubizarreta

IDAZLEA

Coelho

Beti pizgarri zaidan Agustín Fdez. Mallori behin irakurri nion gero eta gutxiago direla lilurutzen gaituzten liburuak, eta liluramendua gaur egun bereziki pantailetatik datorkigula. Alabaina, azken asteotan bat, ez baina bi liburuk xarmatu naute: Daniel Kehlmann-en *Fuma* eta Fermin Etxegoienen *Autokarabana*, biak ere nobelak –lehena bikain lo-r-tutako bederatzizko episodiotzat osatua–, eta biek ala biek ere Paulo Coelho idazlea larrutzen dutenak –nahiz eta lehenean Miguel Auristos Blanco ezizenarekin agertu.

“Denek kritikatzeko dituzte funtzionarioak, burokratak, bulegari txepelak eta paperezko tigreak. Eta zer gara ba, hori baino!? Enplegatu bakoitzak anarkista jotzen du bere burua, artista, izpiritu libre, bere eromena moztorturik ez arau ez obligaziorik ezagutzen ez duena. Gutako bakoitzari noizbait zerua agindu ziguten eta ez dugu onartu nahi aspaldidanik antzik nahi ez genukeen pertsona horietxen kategorian gaudela, guregan ez dela ezer apartekorik, eta besteengandik desberdinak garela pentsatze hutsak hain zuzen besteen berdin-berdinak garela adierazten duela”. *Fuma* liburuko hitzak dira, ezin egokiagoak *Autokarabana*ko aita dibortziatua deskribatzeko, “dudako guraso, dudako kooperatibista eta dudako euskaldun”, zeina Coelho irakurtzen saiatu arren, ezin izan baitu hamargarren orrialdetik pasa, eta antzera mintzo dena: “Bizimodu modernoaren patu puta da, bizitza bakarria bizi dugun arren kontrakoa sinestazten zaigulako, hamaika batera bizi genitzakeela. Bi aukerak uztartzea ezinezkoa denez, konturatu orduko gure adineko kristo guztia frustraturik eta krisialdian sentitzen da, ezta?”.

Irudipena dut *Autokarabana* nobelaren analisi kaustiko, gordin eta maleziatsurekin hobeki uler dezakegula nor –zertan– garen ezein filosofia



DANI BLANCO

edo soziologia liburutan baino: familia, hezkuntza, borroka armatua, euskara planak, prentsa, musika –tamala literatura bazter uztea...– eta, hori guztia “taldegin-tza zentzua gorde duen giza talde moderno” bakarraren testuinguruan, hau da, kooperatibismoan. Irakurri berritan, gurean Saizarbitoria eta Zaldua datozkit gogora, edota Houellebecq eta Kureishi kanpoan. Erreferentzia eta kritika latz

horiekin Euskadi Saria irabazteko moduko liburua da –Lopez lehendakariarentzat zuribide eta guzti: funtsean, euskaldun hiztunok ere ezin dugu euskararekin...–, baldin eta epaimahaikoen beti zelatan egon ohi den filologoa liburuen estiloarekin eta akats tipografiko-ortografiko ugariekin eskandalizatuko ez balitz; egiaz, euskaraz ere trakets dabilen protagonista narratzaileak ikastolan ikasi zuen arreba-aren laguntza beharko du idaztearako, frogan jartzeraino norberarengan ere zein nagusitzen den: filologoa edo literaturzalea... Guztiarekin, benetan

esaldi antologikoak daude, hala nola euskaldunoi buruzko hau: “Pirinioetako bi aldeetan narru polarra janzten duen Herria”.

Agustín Fdez. Malloré ustetan, literatura azken plazer burgesa litzateke, opera edo pipan erretzea bezalakoxea, eta hutsala gizartean duen eragina. “Pertsona alda dezake –ez da gutxi–, baina besterik gabe. Paris Hilton-en azken adierazpenek azken urteko nobela guztiek baino eragin handiagoa dute”. Nik, bi nobela hauen ozpina apur bat ezitzezaren, Coelho ere gaineratuko nuke, eta *El Semanal*en behin idatzitako “*De aquí a cincuenta años...*” artikuluko iragarpena nabarmenduko: “50 urte barru Espainia bisitatzeko duenak ikusiko du Katalunian katalanez baino ez dutela hitz egingo, eta Euskal Herrian dena euskaraz idatzia egongo dela”. ■

« Agustín Fdez. Malloré ustetan,
literatura azken plazer
burgesa litzateke, opera
edo pipan erretzea
bezalakoxea, eta hutsala
gizartean duen eragina



irudia:
Antton Olariaga